

**2. MAILAKO EUSKARA ARLOAREN  
2022-2023 URTEKO  
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**

<b>ikastetxea:</b>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b>	015071
<b>etapa:</b>	DBH	<b>zikloa/maila:</b>	2
<b>arloan/irakasgaia:</b>	EUSKARA ETA LITERATURA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b>	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.		
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b>	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
<b>irakasleak:</b>	IÑAKI ALBERDI	<b>ikasturtea:</b>	2022/2023

**Zeharkako kompetentziak:**

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
2. Elkarbizitzarako kompetentzia.
3. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
4. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
<p>1) Hizkuntzaren zenbaiterabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</p> <p>2) Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espíritu kritikoa hartzea</p>	<p>1) Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, persona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.</p> <p>2) Hainbateuskarritan idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, persona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta</p>

oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.

3) Hizkuntzak diren sistemari buruz modu autonomoan gogoeta egitea, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan testuinguruarekin, testuarekin, esaldiarekin eta hitzarekin lotutako hizkuntzaren erabilera-arauak aplikatzea, hizkuntza modu txukun, koherente eta zuzenean erabiltzea eta transferentzia egokiak egitea helburu hartuta.

4) Norberak hautatutako idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziaz gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.

5) Literatura-generoen eta literaturaren historiako etapa eta lan nagusien oinarriko araei buruz ikasitakoak erabiltzea, denen artean literatura-testuak ondo ulertzeko, eta hori dela eta, literatura-ondarea esperientzia indibidual nahiz kolektiboa sinbolizatzen eta norberaren kultura-identitatea eraikitzen bidez hartzea.

6) Oinarriko ezaguera soziolinguistikoetan oinarrituta, gure errealitate elebiduna eta, orohar, eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutzea, interpretatzea eta balioestea, eta horretan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzearen aldeko jarrera linguistiko enpatiko eta asertiboak

instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.

3) Planifikatu ondoren, ahozko testu soilak sortzea, argiak eta egituratuak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, jardura akademikoari buruzkoak edo gai interesgarriari buruzkoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTenlaguntzaz, hitzeko eta ez-hitzezkobaliabideak egoki erabiliz.

4) Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, elkarlanerako jarrera positiboarekin.

5) Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, persona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, kontuan hartuz komunikazio-egoera, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.

6) Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauaz gogoeta egitea, testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ezezik testu eta berriuspen hobeak egiteko.

bultzatzea eta sustatzea.

7) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo eta kritikoan erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.

8) Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguera eta –estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako konpetentzia hobetzeko.

7) Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruzko gogoeta egitean, testuak ulertu eta sortzeko.

8) Literaturako testu laburrak edo pasarteak ulertzea, ahozkoak nahiz idatzizkoak, denen artean irakurrita eta entzunda, literatura-ezaguera erabiliz, eta testuari buruzko iritzi pertsonala ematea.

9) Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, literatura-testu bat eredutzat hartu eta testuak parámetro jakin batzuen arabera eraldatu.

10) Ahozko nahiz idatzizko literaturaren hainbat lagin ezagutzea, bai eta haien konbentziobereziak ere, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren cultura aberasteko.

11) Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeke eratzen.

12) Hizkuntza-aniztasunaz ohartzea eta hori balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.

13) Hizkuntza-ohituranahiz –jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.

14) Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskolako

	<p>jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.</p> <p>15) Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko.</p>
--	--

**ARAZO EGOERA**[Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelebanteenak agertuko dira.].

<p>● <b>1. Arazo egoera : Objektu bat deskribatu ordena lojiko bat jarraituz.</b></p> <p><u>Testuingurua</u>: Deskripzio eredu bat irakurri ondoren, irakasleak emandako objektu konkretu baten ezaugarriak xehetasunez azaltzeko saiakera egingo dute.</p> <p><u>Helburua</u>: Objektu bat deskribatu ordena bat erabaki eta jarraituz, izenondo egokiak bilatuz edo berriak ikasiz. Baita metaforak egiten ikasiz ere. Ikasi bereizten deskribatzeko era objektiboa, alde fisikoa, eta era subjektiboa, norbere inpresio eta iritziak txertatuz eta bakoitzaren oroitzapen personal konkreturen batekin lotuz .</p> <p><b>Betebeharrak</b>: izenondo berriak ikasi eta metaforak egiten ikasi</p> <p><b>2. Arazo egoera: Herriko ibilbide bat asmatu orientabideak emanaz.</b></p> <p><u>Testuingurua</u>: Abadiño herria. Beste herri bateko ikasleak datoz herrira eta eurak Abadiño ezagutzeko moduko ibilbide interesgarri bat asmatuko dute</p> <p><u>Helburua</u>: Jarraibide testuak egiten ikastea ingurune ezagnetk abiatuta.</p> <p><u>Betebeharrak</u>: Testu lokailuak erabiltzen ikasi eta</p> <p><b>3. Arazo egoera: Gaurkotasuna duen gai bati buruzko iritzi artikulua egin.</b></p> <p><u>Testuingurua</u>: Covid-19 eta agintarien erabakiak</p> <p><u>Helburua</u>: Iritzi artikulua bat idazten ikastea pausoka, bere atal desberdinak bereiztuz eta gaiari ondo erantzunez.</p> <p><u>Betebeharrak</u>: Iritzi artikulua baten egitura ezagutzea bere atalak desberdinduz eta atal bakoitzaren funtzioa ulertuz. Zation ordena egokia barneratzea.</p> <p><b>4. Arazo egoera: Gure gustuko film bati buruzko iruzkina egin</b></p> <p><u>Testuingurua</u>: Norbere gustuak identifikatzen ikasteko gustatu zaigun film bat hautatu.</p> <p><u>Helburua</u>: Film bati buruzko iruzkina (iritzi artikulua mota bat da) idazten ikastea, film batek dituen atal desberdinei erreparatzen lagunduz eta adjektiboa baloratiboak erabiltzen lagunduz.</p> <p><u>Betebeharrak</u>: Film baten atal desberdinak ezagutzea, kontatzen den istorioa, irudien kalitatea, aktoreen lana, bere erritmoa.</p>
---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitatedidaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleokaedobestemoduren batera antolatuta...].

## 1. Ebaluazioa

Hasierako ebaluazioa

### 1. Unitatea: Kar, kar, kar!

- Irakurmena: Barreak egitea, ariketa ezin hobea
- Idazmena. Gauzak deskribatzea. Gitarra elektrikoa edo beste objekturen bat
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausaren osagaien funtzioa, Izena eta izenordaina
- Literatura: Mitologia eta kondaira
- Multzo atzizkiak
- Ortografia: zenbaki kardinalen idazkera

### 2. Unitatea: Klip-kultura

- Irakurmena: Bideo-jokoak arte-mugimendua osatu nahian
- Hizkuntzaren erabilera: Izen-sintagmarenerabilera, Deklinabidea: kasuak eta erabilera
- Literatura: Herri ipuinak
- Toki atzizkiak
- Ortografia: zenbaki ordinalen idazkera

### 3. Unitatea: Hil eta gero, salda bero!

- Irakurmena: Halloween, ohitura zaharra Euskal Herrian
- Hizkuntzaren erabilera: Deklinabidea: mugagabea, aditz lagunak: postposizioak
- Denbora atzizkiak
- Ortografia: zenaki banatzaileen idazkera

## 2. Ebaluazioa

### 4. Unitatea: Beti bila ala bertan gozo?

- Irakurmena: Marko Polo nafarra
- Idazmena: jarraibide testua. Abadiñon ibilbide bat azalduz orientabideak idatzi.
- Hizkuntzaren erabilera: aditz jokatuabeak: aditzoina, aditz-partizipioa eta aditz-zena. Aditz trinkoen erabilera
- Literatura: alegiak. Bizenta Mogel.
- Gogo atzizkiak
- Ortografia: aditzoinaren idazkera

### 5. Unitatea: Mundua inauteri

- Entzumenak: Hezkuntza sistema propioaren aldeko ikasle taldearen aldarrikapenak eta proposamena.
- Ahozko adierazmena. Ikasleen proposamenari buruzko eztabaida
- Irakurmena. Gizon irudiduna
- Hizkuntzaren erabilera. Aditzaren aspektua lehenaldian. Perpaus motak
- Literatura: Haur eta gazte literatura

### 6. Unitatea: Mendian ala kalean?

- Irakurmena: Bizitza alternatiboak
- Hizkuntzaren erabilera: Aditza: Nor-Nork aditz laguntzaileak, Perpausa erlatiboa
- Hitz elkarketa
- Sintaxia: menderagailuak

### 3.Ebaluazioa

#### 7. Unitatea: Artearen esanahia

- Irakurmena: Amets egiteko. Cirque du Soleil
- Hizkuntzaren erabilera: Aditza: Nor-Nori aditz laguntzaileak, Moduzko perpausak
- Idazmena. Iritzi artikulua. Iritzi artikulua, Covid-19ri buruz agintariek izandako jarrera eta jardueraren inguruan.
- Literatura:
  - Narratiba II. Eleberri historikoa.
  - Erromantzizismoaren etorrera eta Euskal Pizkundea. Lourdes Otaegiren artikulutik laburtua.

#### 8. Unitatea: Nortasuna berreizgarri

- Irakurmena: Aktoreen gutziak
- Idazmena: Film bati buruzko iruzkina.
- Hizkuntzaren erabilera: Aditza: Nor-Nori-Nork aditz laguntzaileak, Denborazko perpausak
- Literatura: Narratiba III: Eleberri erromantikoa

#### 9. Unitatea: Domotika. Zuk soilik klika!

- Irakurmena: Sareko izarrak
- Hizkuntzaren erabilera: Baldintza hipotetikoaren erabilera, Baldintza jokatuak eta jokatuabeak

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Helburua argi utzi.

- Hasierako ebaluaketa: azalduko den gaiari buruz ea ikasleek zer dakiten.
- Azalpen orokorra: ikasleak dakien horretatik abiatuta, ezagupenak zabaldu. Aukera egonez gero, saiatu gai hori beste ikasgaiekin lotzen.
- Mota ezberdinetako ariketak egin: galdera/erantzunak, aditzen taulak, hutsuneak bete, berridazketak, sinonimoak bilatu, literatura iruzkinak, testuak ekoiztu ahoz eta idatziz. Jarduerak komunikazioari dagozkien lau gaitasunak garatzeko aukera emango dute.
- Irakurmena: liburuaren zehar ulermen galderak egingo dira.
- Azterketa idatziak
- Mintzamina lantzeko, behin egoera azalduta, taldeka edo bakarka ahozko jardunerako gidoia prestatu, ahozko testua ekoiztu, jendearen aurrean aurkeztu.
- Lanak egiteko edo aurkezteko teknologia berriak erabili.
- Idazlanak: eskema osatu ideien hurrenkerarekin, idazlana egin, idazlana zuzendu, idazlana aurkeztu.
- Lanak egiteko informazioa aurkitu, aukeratu, planifikatu, egokitu...

- Ikasturtean zehar ikastetxeko hainbat proiektuekin ( Agenda 30, Hezkudetza...) zerikusia duten testuen lanketa egingo da.

## **BALIABIDEAK**

- Testu liburua eta lan koadernoak
- Irakurketa liburuak
- Material osagarriak, bideoak, arbela digitala.
- Ikasgela

- IKT baliabideak:

- Web guneak:

- : [www.euskaljakintza.net](http://www.euskaljakintza.net),

- [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net),

- [www.bizkaie.com](http://www.bizkaie.com),

- [www.habe.org](http://www.habe.org),

- [www.bertsolari.com](http://www.bertsolari.com)

- , [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net),

- [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net),

- [www.ikasbil.com](http://www.ikasbil.com)

- , [www.youtube](http://www.youtube),

- [www.musikazblai.com](http://www.musikazblai.com)

**Testu liburua:** Euskara eta Literatura (DBH 2) (Santillana)

Testu liburua ikasleei edukiak irakasteko baliatzen da.

**Irakurketa liburuak:** Ikasleak kurtsoan zehar bi liburu irakurriko ditu, ondorenguz lau liburuetatik. Liburu bakoitzari buruzko azterketa edo lana egingo du. Liburuaren irakurketa derrigorrezkoa da. Liburuaren azterketan, liburua irakurri eta ulertu duela erakutsi behar du.

Liburu zerrenda: - Jara Bartzelonan

- Ezekiel noraezean
- Dorretxe zaharreko misterioa
- Maitasun sua

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p>Eguneroko behaketa Azterketak Lanak (banaka,) Eguneroko ariketak</p> <p>Kontrol orriak Irakasleak egindako ebaluazioak Liburuaren laburpena Iritzi artikulua Filmaren iruzkina</p>	<p>Gramatika (+ Literatura) %50 Ahozkoa %15 Idazlana %15 Irakur liburua %10 Jarrera %10</p> <p>Kalifikatzeko eredu honek aldaketak izan dezake egoerak horrela eskatzen badu.</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	
<p>Ebaluazio jarraia da, beraz, ebaluazio bat gaindituz gero aurrekoa(k) gaindituztat hartuko dira. Ekainean, aparteko azterketa egingo da, aurretik gaindituta ez badago.</p>	

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

Ebaluazio jarraia da, beraz, ebaluazio bat gaindituz gero aurrekoa(k) gaindituztat hartuko dira.

**ERREKUPERAZIO-SISTEMA**

Ekainean, ohiko deialdian arloa gainditu ezik, ezohiko proba burutzeko aukera izango dute. Proba hau gainditzeko 5a atera beharko da.

**AURREKO IKASTURTEKO HELBURUEN BERRESKURAPENA**

Irailean euskara indartzeko banakako plana egingo zaio ikasleari. Bertan, ikasleak eskuratu beharreko edukiak, jarraipena egiteko metodologia, erabiliko den material lagungarria, zein



ebaluaziorako aldiak zehaztuko dira. Ikasleari eta bere familiari ikasturte hasieran emango zaie plan honen berri. Ikasleak irakasgaia urtean zehar gainditzeko aukera izango du, baldin eta ikasturte honetako ebaluazio bat gainditzen badu. Horrela izan ezean, azken aukera ekaineko ez-ohiko azterketa izango da.

Beraz, aurreko ikasturteko euskera gainditu gabe izatekotan, errekuaratzeko hainbat aukera izango dituzte:

- 2.mailako ikasturtearen ebaluaketaren bat gainditzekotan ( 5,5 puntu atera behar dira) 1mailakoa gaindituta geratuko da.
- 1Ebaluaketa gainditzen ez badute, 2. Hiruhilekoaren hasieran birpasatzeko materiala eta orientabideak emango zaizkie eta urtarrilean zehar azterketa egin ahal izango dute, hau ez badute gainditzen ekainean veste aukera bat izango dute.

### **ANIZTASUNAREN TRATAERA**

Aniztasuna tratatzeko neurriek unean uneko premiei erantzun beherako diete, ikasleen motibazioa eta ahalmena kontuan hartuta. Ikasleen aniztasunari errefortzurako edo zabaltze-jardueren bidez emango zaio erantzuna, eta behar diren metodologia aldaketak eginez.

### **JOKABIDE DESEGOKIEN ONDORIOAK**

Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desegokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.

Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desegokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen kompetentzia horiek.

